

bíodh an
LÁ
leat gach lá



níos
fearr ná
riamh

nuachtán laethúil na nGael

NUACHTLÍNE

An tSuaimh

Is éadomhan... (text continues)

Mac An Faraigh

Thair an tEanáir... (text continues)

An Bhrasail

Is éadomhan... (text continues)

Dóire Chóim Uille

Is éadomhan... (text continues)

Iap

Is éadomhan... (text continues)

An tSúdaín

Is éadomhan... (text continues)

An tAigean Atlantach

Is éadomhan... (text continues)

Millwall Shasana

Is éadomhan... (text continues)

Calar

Is éadomhan... (text continues)

Clann Lír ar an Lagan



Fórsaí slándála cáinte
ag sagart na
sochraide

Canúch... (text continues)

Kiobail Airgid

Breathlín

Canúch... (text continues)

Cogadh é míleilín

Canúch... (text continues)

Euskaltzale bat gaelikoaren bult: at: aile: Patrick Rice.

Eta, gure klasikoek bezala esateko, berri horiek «beren buruz ere aski goraki baitira», ozta-ozta erantsiko dut nik ezer neure aldetik. Beren buruz pentsatzeko ohitura galdu ez duten irakurleek, bertan behera asmatuko baitute berri horiek Euskal Herriari buruz duten garrantzia.

Gaur «Ipar-Irlanda» deitu ohi dugunak, Ulster-ko sei konterri biltzen ditu: falta diren hiruak Irlandako Errepublikako parte direlarik. Bestela esanda, Irlandatik Britainia nagusia erretiratzean, zaitu egin zuen Ulster zaharra: eta, hain zuzen, Mendebaldeko kostaldeko hiru konterriak Dublini utziz, bi kolpe eman zituen batera: Ulsterko eskualde aberatsak berretzat atxiki, eta Ulsterko eskualde gaelikoak (txiroenak, jakina) utzi. Inperialismoaren menpean gelditu den sasi-Ulster ofizial hori, hitz batez, «erdaldun» hutsa da, nolabait esateko: Belfasten inguruko Ipar-Irlanda britaniko horretan nazio-hizkuntza erabat galdua delarik.

Hots, halere, eta handik datozkigun berriek gezurtarazten ez bagaituzte, Irlanda Askatuaren eta Gaelikoaren helburu zaharra, Dublingo gobernuak saldua izan ondoren, agian «askatu

ARGIZPIAK BELFASTETIK

Irlanda aipatuz gero, berri txarrak eman behar. Hori izan da legea aspaldiko honetan. H-Blokeko berri latzak, Dublingo gobernuaren saldukeria azkengabeak, nazio-hizkuntzaren hilurrena, gose-grebalarien heriotza latza eta ondoriogabea.

Gaurkoan ez. Gaurko neure honetan **Beál Feirste**-ko berriak aipatuko ditut hemen (Belfastekoak, alegia).

gabeko» Ipar-Irlandan itsatsiko da agian.

Ez Londresko gobernu jator jokutzen hasia delako. Ez horixe. Belfasteko Telebistan gaelikoaren arrastorik ez dago, gaelikoaren aldeko dirurik ez

dago, gartzeletan debekatua da gaelkoz hitzegitea, eta kale-izenak berai ingeles hutsez datoz Ipar-Irlandan.

Halere, gaelikoaren aldeko abertzaileek urrats galantak eman dituzte. Irrati bat zabaldu da gaeliko hutse-



Belfasteko abertzaleek bultzaturik, gaelikoeko aldi-kari bat.



Ez-kerraldean, M.O. Muilleoir; eta erdian G. Mac Giolla, LA egunkariaren zuzendaria.

ari: goizetan 11-etatik 13.30-etara; eta arratsaldeetan 17.00-etatik 20.00-etara. Eta Belfasteko AEK-an, nolazpait esateko, 25 ikastalde ari dira egunero-egunero nazio hizkuntza errekupe-ratzen.

Pausurik haundiena, halere, LA egunkariarena izan da. Irlandako kondairan lehenengo aldiz, Dublingo gobernu «abertzale»ari aurrea hartuz, **Belfasten** plazaratu da azkenik gaeliko hutsezko egunkari bat. Egunean zortzi orrialde ditu, ingelesezko lerro-rik batera gabe. Horretarako halako Soziedade bat sortu da. «Comhaltas Uladh» izenekoa, begulo batzu zabaldu dira Belfasten, eta Sekretari bat izendatu, gauzak zuzentzeko: Gerróid Mac Giolla Domhnaigh jauna. Atzekaldean, baina zinki laguntzen ari. Sinn Fein-eko bi burukide: Mairtin O Muilleoir gaztea, 25 urte; eta Euskal Herria ongi ezagutzen duen gaelikozale porrokatu bat: Pádraig O maolchraoibhe gizon heldua, 44 urte, azkeneko hauteskundeetan Sinn Fein-en zerrendetan Lisburn-en kontseilari hautatua (Belfasten ondoan).

Horrez gain, beti Sinn-Fein-ek la-gundurik, eta gaeliko hutsez beti, «Saoirse» aldizkaria argitaratzen da. Eta asteburu «gaelikoak» antolatzen dira Belfasten: larunbatetan 50 lagun biltzen dira «Old Mill» izeneko biltokian (gaelikozko izena nola duen ez dakigu), eta zazpi orduz, goizeko hamarretatik arratsaldeko bostak arte, «Mini-Choláiste» delakoak antolatzen dituzte; gaeliko hutsez bizi ahal izateko. Ez dakigu nola ari diren; baina «revolutionary method» bat omen darabilte. Guk geure euskaltokiak



Seán O Tuama irakaslea, Belfasteko egunkari gaelikoak harriturik.

«kaleko baserri» deitu ditugun bezala, ulstertar abertzaleek ere hirietako «Gaeltacht» bataiatu dute euskaltoki gaeliko hori. Prezioa, dena esateko: 1.50 libra.

Dublingo instituzioak eta IRA-ren beso politikoa den Sinn Fein delakoa, gaizki moldatzen dira. Joan den Maiatzean (24-25-26) Dublinean El-karte Gaeliko ofizialak eratu zituen mahai inguruetara, hitza kendu zien Sinn Fein-ekoei. Belfastetik joan ziren ordezkariak, horretara, hitzik gabe gelditu ziren; eta aurkeztu ziren protestek ez zuten fruiturik eman. «Mórthionón!» delakoa... indar ofizialentzat egin da... Jakina: Seán O Tuamak eta gainerako gaelikozale askok begi onez ikusten dute Sinn Fein-etik datorren bultzada. Baina IRA-koekin nahas ditzaten beldurrez, atzera...

Okerrago ari dira jokatzeko «The Workers Party» (Langileen Partidua) izenekoak. IRA eta Sinn Fein «ofi-



Asteburuak gaeliko hutsez bizi ahal izan.

zial»etik etorririk, piskanaka-piskanaka britaindarren arteko britaindarrenak bihurtu dira. Hasieran Sinn Fein «ofizialak» ziren, gero «Sinn Fein – The Workers Party», deituraz marxista-leninistak; gero «The Workers Party» bakarrik; ta azkeneko hauteskundeetan Sinn Fein-en erditsua baino gutxiago atera dute. Hizkeran marxista izanik ere, aparatuko postu-ehizean gelditu dira; eta anti-abertzale amorratuak dira gaur.

Aspaldisko honetan zabaldu diren gaeliko hutsezko «ikastolak», Belfasten inguruan zabaldu dira. Baina hau, Seán O Tuama irakasleak berak azaldu duenez, Dublingo gobernuaren laguntza izpirik gabe...

Zinez badago horretan guztian zer pentsaturik.

Baina besterik gabe, hementxe isilduko naiz.